



## BETEARAZPEN ZIBILARI BURUZKO ONLINE IKASTAROKO DEIALDIA

Justizia Administrazioako Zuzendaritzak Betearazpen Zibilari buruzko ikastaroa eskaintzen du, on-line modalitatean

Baldintzak:

1 Ikastaroa, bereziki, Euskadiko Justizia Administrazioako karrerako eta bitarteko funtzionarioentzako zuzenduta dago, onartutakoen eta baztertutakoen behin behineko zerrenda argitaratzen duen Ebazpenaren datan jardunean daudenentzako; eta aurreko lau urteetan ez dute ikastaroa osatu. 300 plaza. **Ez du lan-poltsetarako balio.**

2 AUTOMATRIKULA: Epea **maiatzaren 15ean** irekiko da eta **maiatzaren 28an** itxiko da goizeko 09:00etan.

- [Betearazpen Zibil online izen ematea](#)

***Modu honen bidez aurkeztutako eskabideak bakarrik hartuko dira kontuan.***

3 Ekainaren 9an, posta elektronikoko bat bidaliko zaie ikastaroan onartutako pertsoneri, ikastaroan sartzeko jarraibideak emanez. **GARRANTZITSUA: Posta elektronikoko erretilu guztietan begiratzea gomendatzen da, Spam-ena barne.**

4 IKASTAROA: **ekainaren 9an** hasiko da, **14:00etan**, eta **ekainaren 22an** amaituko da, **goizeko 09:00etan**. Epe horretan ikasleak online sar daitezke ikastarora.

5 Ikastaroa moduluz osatuta dago. Modulu bakoitza amaitzeko, autoebaluazio-test bat egin behar da. Test horri esker, ikasleak zenbat aurreratu duen jakingo du, eta moduluak behar beste errepikatzeko aukera izango du, modulua behar den moduan ulertu eta ikasi arte.

6 Egitaraua:

- ✓ 1.gai: Gaia: Definizioa eta motak.
- ✓ 2. gai: Prozesuaren betearazpena erreformaren ondoren.
- ✓ 3. gai: Nahitaezko betearazpenaren berezitasunak.
- ✓ 4. gai: Titulu betearazleak.
- ✓ 5. gai: Enbargoa eta aseguramendu-neurriak.
- ✓ 6. gai: Behin-behineko exekuzioa.
- ✓ 7. gai: Diruzko kondenaren titulu judiziala betearaztea.
- ✓ 8. Gaia: Titulu ez-judiziala betearaztea.
- ✓ 9. gai: Ondasunaren premiamendu-, hitzarmen- eta besterentze-prozedura.



- ✓ 10. gaia: Ondasun higigarriak premiamendu-bidez egitea.
  - ✓ 11. gaia: Erregistro-publizitatea duten ondasun higiezinak eta higigarriak premiamendu-bidez egitea.
  - ✓ 12. gaia: Diruzkoa ez den kondena betearaztea
  - ✓ 13. gaia: Hipoteka betearaztea. Azterketa egiteko eskubidea izateko, ikasleak ikastaroko test guztiak egin beharko ditu.
- 7 **AZTERKETA:** Ikastaroa amaitua, **ekainaren 23an, 14:00etan**, irekiko da azterketa online egiteko epea, eta **ekainaren 30an** itxiko da, **goizeko 09:00etan**.
1. Azterketaren epea amaituta, gainditu dutenek diploma jasoko dute "**Nire karpeta**" - **Euskadiko Sare Elektronikoa- atalean**.